

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# INDARTU 2020

Genero indarkeriak  
prebenitzeko programa  
UPV/EHU

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)





# AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	<b>4</b>
<b>Helburuak</b> .....	<b>6</b>
<b>Partehartzaileak</b> .....	<b>7</b>
<b>Edukiak</b> .....	<b>7</b>
<b>Metodologia</b> .....	<b>8</b>
<b>Esku hartzearen urratsak</b> .....	<b>8</b>
<b>Ebaluazio eta akreditazio prozedura</b> .....	<b>11</b>

# Sarrera

2017ko maiatzean, Berdintasunerako zuzendaritzaren ekimenez, hogeita hamar pertsonako lan talde misto bat sortu zen, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planeko 3.3.2 ekintza betetzeko. Lan taldeko kide gehienak unibertsitatekoak ziren (ikasleak, IRIak, AZPkoak eta ordezkari sindikalak), eta, gainera, bi aditu ere bazeuden, genero indarkeriei buruzko esku hartzearen arlokoak. Lantaldeko irakasleetako batzuk parte hartzen ari ziren Europako ikerketa proiektu batean, unibertsitateetako sexu indarkerien inguruan. Lan taldearen helburu

nagusia zen Genero Indarkerien Aurkako UPV/EHUren Protokoloa egitea. Urtebeteko lanaren ostean, lan taldeak protokoloa amaitu zuen, eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2018ko ekainaren 7an.

Protokoloaren Atarikoan esaten denez, *UNIBERTSITATEAREN HELBURUA DA UNIBERTSITATEAN GIRO SEGURUA MANTENTZEA ETA SUSTATZEA UPV/EHU OSATZEN DUTEN PERTSONA GUZTIENTZAT, GENERO INDARKERIETATIK AT.* Era berean, azpimarratzen da *UNIBERTSITATEAK EZ DUELA GENERO INDARKERIEN INONGO ADIERAZPENIK ONARTUKO ETA BERE ESKU DAUDEN NEURRI GUZTIAK HARTUKO DITUELA* jarrera eta

*Portaera horiei AURRE egiteko.* UPV/EHUrentzat genero indarkerien eremuan sartzen diren jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, unibertsitateak konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko.

Horretarako, Protokoloak biltzen ditu bai prebentzio neurriak eta bai indarkeria kasuak gertatzen direnean jarraitu beharreko prozedura. Zehazki, prebentzio neurrien helburua da genero indarkeriazko ekintzak gerta daitezela eragozte, eta horretarako *UNIBERTSITATEKO kideak informatzeko, sentsibilizatze, trebatzeko eta prestatzeko estrategiak* diseinatu eta ezartzen ditu. Neurri horiek genero berdintasun eta aniztasunarekiko eta sexu orientazioare-

kiko errespetuaren kultura sustatu behar dute, baita barne hartzailea eta indarkeriarik gabekoa izango den giroa sortu ere.

Testuinguru honetan aurkezten dugu esku hartze psikosozialerako «INDARTU» PROGRAMA, UPV/EHUko emakumezko ikasle gazteekin gauzatzekoa. **Bigarren edizio bat egitea** proposatzen dugu, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusean, 2019/20 ikasturteko bigarren lauhilekoan, osasungintzarekin lotutako ikastegitako bigarren mailako emakumeekin, etorkizunean genero indarkerien kontrako ikasleen sare bat sortzeari begira. Edizio honetan *bi talde* eratuko dira Campus bakoitzeko: bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz. Talde bakoitzak 20 kide izango ditu, ikastegi desberdinetakoak eta denak ere bigarren mailakoak.

# Helburuak

Programaren **helburu nagusia** da emakumezko ikasle gazteak ahalduzko prozesu bat abian jartzea, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa.

**Helburu espezifikoak** hiru mailatan zehaztu dira: norbanakoari begira, testuinguruari begira eta aktibismoari begira.

## Norbanakoa

- Norbereburuarekiko (gorputzarekiko, plazerarekiko) jarrerak ulertzen laguntzea.
- Norbere buruarekiko jarrera positiboa eta autozaintza sustatzea ahalduzko ikuspegi batetik.

## Testuingurua

- Genero indarkerien sustrai, forma eta funtzioen berriematea.
- Mikromatxismoak eta indarkeria larriagoak identifikatzea egunerokoan.
- Baliabide pertsonal eta kolektiboak eskaintzea eguneroko egoera matxistak gainditzeko.
- Ahizpatasuna sustatu eta indartzea parte hartzaileen artean.

## Protokoloa

- Unibertsitateko prozesuan zehar eman daitezkeen genero indarkerien egoerei erantzuteko, protokolo bat sortzea.

# Parte hartzaileak

Programa osasungintzako ikasle emakumeei zuzendua dago, espazio seguru eta ahalduntzekoa sortze aldera. Bi talde eratuko dira Campus bakoitzeko, bakoitza 20kidekoa gehienez. Talde bat gaztelaniazkoa izango da eta bestea euskarazkoa. Parte hartzaileak 2. mailakoak izan beharko dira, 1. mailakoek oraindik ere denbora behar dutelako

Unibertsitateko dinamikak, espazioak eta abar ezagutu eta bereganatzeko. Gainera, programaren xedeetako bat bada ikasleen artean sortzea unibertsitatean eragina izan dezakeen sare bat, beharrezkoa da programa egiten duten ikasleek oraindik amaitu barik izatea unibertsitateko ibilbidea.

# Edukiak

Proposatzen diren edukiak hiru bloke tematikotan banatuta daude: **Sexualitateak** (nolako sexualitateak errepresentatzen gaitu gure gizartean? Noraino dauzkagu barnerratuak sexu arauak? Zelan bizi dugu gure sexualitatea?), **Genero indarkeriak** (zer dira genero indarkeriak? Nortzuei eragiten digu eta zelan? Identifikatzen al ditugu eguneroko bizitzako mikromatxismoak? Zer-nolako bikote harremanak eraikitzen ditugu?) eta **Protokoloa** (zer egin dezakegu indarkeria egoera baten aurrean? Zer baliabide eskaintzen digute erakundeek? Zelan antola gaitezkeerasobatierantzuteko? Zeregindezakegu unibertsitate espazio segurua izan dadin guretzat?)

## Sexualitateak

Sexualitatearen eredu hegemonikoa  
Aniztasun sexuala  
Moral sexual bikoitza

## Indarkeriak

Indarkeria matxista  
Indarkeria sexista  
Genero indarkeria  
Maitasun erromantikoa

## Protokoloa

Baliabide kolektiboak  
Baliabide instituzionalak  
Protokoloaren sorrera

# Metodologia

Pedagogia feministetan oinarritutako metodologia bat erabiliko da, non esperientziaren bidezko ikaskuntzaren garrantzia aitortzen den. Gainera, zaintzaren etika ere txertatuko da, zeinaren arabera pertsonak bere osoan hartzen diren aintzat, beren aldean diguztiekin—fisikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala— eta bestelako bideak erabiltzen diren jakintza sortu eta transmititzeko (antzerkia, irakurketak, batzarrak eta abar).

# Esku hartzearen urratsak

## Aurkezpen bilera

Esku hartzeari ekin aurretik, bilera bat egingo da parte hartzaile guztiekin, programa aurkezteko, guztien artean erosotasun eta konplizitate giroa sortzeko, programatik zer espero dugun aztertzeko eta hasierako diagnostiko bat emango digun aurretest bat egiteko.

## Programaren aplikazioa

Programak zortzi saio izango ditu, hiruna ordukoak, talde bakoitzarekin, hau da, talde bakoitzak 24 ordu beteko ditu guztira. Saioak otsaileko bigarren astetik apirileko lehen astera bitartean egingo dira, hots, astean saio bat egingo da.

## Amaierako bilera

Bilera horren helburua izango da talde bakoitzean norberak bizi izandako prozesuaren berri emateagaitik, gainera, parte hartzaileei, eta baluazioa egitea.



## Laburpen taula

Aurkezpen bilera (2020ko otsaila)	Saioak (2020ko otsaila-apirila)			Amaierako bilera (2020ko apirila)
	Sexualitateak	Indarkeriak	Baliabideak	
Aurkezpena Espektatibak Aurretesta	<b>1. saioa</b> Sexualitatearen eredu hegemonikoa	<b>4. saioa</b> Indarkeria matxista	<b>7. saioa</b> Protokoloaren sorrera	Ikasitakoak Ekintza planak <b>Ebaluazioa</b> Amaiera
	<b>2. saioa</b> Aniztasun sexuala	<b>5. saioa</b> Indarkeria sexista	<b>8. saioa</b> Protokoloaren sorrera	
	<b>3. saioa</b> Moral sexual bikoitza	<b>6. saioa</b> Maitasun erromantikoa – Genero indarkeria		

# Ebaluazio akreditazio prozedura eta

Ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo da. Ebaluazio kuantitatiborako prozesuaren ebaluazioa eta emaitzen ebaluazioa egingo da parte hartzaile guztiekin. Programa amaitzean, arduradunak txosten batean jasoko ditu hala ebaluazio kuantitatiboa nola kualitatiboa.

Gainera, saioguztietara joan diren partehartzaileei partehartze ziurtagiria emango zaie, eta ECTS kreditu bat eta erdi aitortuko zaie.

## Egutegia

\*A eta D taldeak euskaraz izango dira.

\*B eta C taldeak gaztelaniaz izango dira.

Saioa	Data	Ordutegia	Tokia	Taldea
<b>Aurkezpen bilera</b>	2020/01/28	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/01/29	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>1.Saioa</b>	2020/02/04	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/02/05	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>2.Saioa</b>	2020/02/11	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/02/12	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>3.Saioa</b>	2020/02/18	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/02/19	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>4.Saioa</b>	2020/02/25	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/02/26	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>5.Saioa</b>	2020/03/03	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/04/04	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>6.Saioa</b>	2020/03/10	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/03/11	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>7.Saioa</b>	2020/03/17	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/03/18	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>8.Saioa</b>	2020/03/24	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/03/25	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak
<b>Amaierako bilera</b>	2020/03/31	15:00-18:00	Leioa	A eta B taldeak
	2020/04/01	15:00-18:00	Donostia	C eta D taldeak